



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Zarzelako maisu zahar baten eta bere ikasle ohiaren arteko topaketak mamu musikal eta pertsonal zaharrak berriz irekiko ditu Albert Boadellaren *Malos tiempos para la lírica* antzezlanean

- Antonio Comas tenorak Don Julián maisuarena egiten du eta María Rey-Joly sopranoak Susana King pertsonaia hezuramaitzen du, garai batean haren Zarzuela ikasle izandakoa eta gaur egun musika komertzialeko abeslari ospetsua dena.
- Bi emanaldi egingo dira asteburu honetan Arriaga Antzokian, azaroaren 11an, larunbatean, eta 12an, igandean, biak 19:00etan.

Bilbo, 2023ko azaroaren 8a. Albert Boadellak Zarzuelarekin berriz elkartzea, eta zerbait gehiago, proposatzen du asteburu honetan (azaroaren 11n, larunbatean eta 12an, igandean) Arriaga Antzokira iritsiko den *Malos tiempos para la lírica* ikuskizunarekin.

Kontu estilistikoei erreparatzen badiegu, *Malos tiempos para la lírica* antzezlanak Zarzuelaren ikuskizunetako elementu oso bereizgarriak ditu: kantatutako hitza eta deklamaturako hitza, kantuaren eta argumentuaren arteko lotura, protagonisten arteko amodio eta desamodio istorioa... Izan ere, ikuskizunean zuzenean eta mikrofonorik gabe interpretatzen dira obra oso karismatikoen erromantza ezagunen zatiak, hala nola Pablo Sorozábalen *La tabernera del puerto*, Pablo Lunaren *El niño judío*, José Serranoren *Los claveles*, Francisco Asenjo Barbieriren *El barberillo de Lavapiés* eta Tomás Bretónen *La verbena de la paloma* obrenak.

Albert Boadellak **Martina Cabanasekin** batera egindako libretoak zarzuela maisu zahar eta gaixo bat aurkezten digu, zeinak aurre egin beharko baitio bere ikasle onenari, gaur egun AEBko kontsumo-musikaren protagonista arrakastatsu bihurtu denari. **Antonio Comas** tenorak egiten du Don Julián lirikako maisu zaharrarena, bere garaian Susana King ospetsuaren kantu-irakasle izandakoarena. **María Rey-Joly** arduratuko da Susana King-i ahotsa eta gorputza jartzeaz. Susana King, egiaz, Susana Rey sopranoa da, zeinak bost Grammy eta mundu mailako arrakasta handienak zarzuela askotariko estiloekin nahastuz lortu baitzituen, hala nola poparekin, rockarekin, hip hoparekin edo regetoiarekin.

Gaur egun, bakarrik eta gaixo dago Don Julián, zaharren egoitza moderno eta automatizatu batean. Susanari, bere ibilbide profesional frenetikoak ahotsa aldi baterako desagertzea eragiten dio eta, krisia konpontze aldera, bere *coachak* bizitzan *reset* bat egiteko eta iraganarekin adiskidetzeko konbentzitzen du. Susanak atxikimendu berezia du oraindik bere maisuarekiko, eta AEBtik etortzen da hura

bisitatzen, nahiz eta Don Juliánek hura ikusi nahi ez izan, uste duelako Susanak prostituitu egin zituela bere irakaspenak, musika gaizto bati aplikatuz. Susana Don Juliánen ikaslerik onena izan zen urteetan, adin-aldea gorabehera, maisuak ikasle gaztearekiko erakarpen bizia sentitzen zuen. Eta Susanarengan ere bizirik dirau maisuak bere bizitzan izan zuen nagusitasun handiarekiko menpekotasun hondogabea.

Bien arteko topaketak eztabaida artistiko bortitzak eragingo ditu haiengan, baina pasiozko harremana ere piztuko du. Iragana gogora ekartzeak eta zarzuelaren errugabetasun sentimentalera itzultzeak dilema bat piztuko diote abeslariari: ea zer nahiago duen, mundu agoniko eta dekadente hura edo bere garaipen-irrikak ekarri dion bizimodu nahasia.

Berriro datoz Arriagara

Albert Boadella, Antonio Comas eta María Rey-Jolyk osatutako hirukoa berriz etorriko da Arriaga Antzokira. Izan ere, bi abeslari/aktoreek protagonista gisa lan egin dute Boadellaren hainbat obra lirikotan, tartean *Diva* ikuskizunean, orain dela bi urte, 2021eko urrian, Arriaga Antzokian ikusi ahal izan genuen hartan.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 13 eta 25 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Malos tiempos para la lírica

Zuzendaritza: **Albert Boadella.**

Sopranoa: **María Rey-Joly.**

Tenorra: **Antonio Comas.**

Zuzendariaren laguntzailea: **Martina Cabanas.**

Espazio eszenikoa: **Martina Cabanas, Bernat Jansà.**

Argiztapena: **Bernat Jansà.**

Aholkulari artistikoa: **Dolors Caminal.**

Soinua: **Carlos Parra.**

Errejidorea: **María Dávila.**

Susana Kingen musika-egokitzapenak: **Marc Álvarez.**

Ikus-entzunezko diseinua: **Raúl González.**

Piliren ahotsa: **María Cirici.**

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus